

2010ean ere migrazio-saldoa positiboa da Euskal AEn, baina % 2 murriztu da


Aurreko urtean bezala, Euskal AEn eta gainerako Autonomia Erkidegoen arteko migrazio-saldoa ere positiboa da.

Euskal AEko migrazio-saldoa: Eustatek emandako datuen arabera, hamaikagarren urtez jarraian migrazio-saldoa positiboa izan da Euskal AEn. Etorritako pertsonak joandakoak baino 13.028 gehiago izan ziren; hala ere, zifra hau 2009koa baino % 2 txikiagoa da.

Lurraldearen arabera, Bizkaiak 6.562 pertsona gehiago izan ditu, kopuru absolutuetan migrazio-saldorik altuena (2009. urtekoaren aldean % 11 gutxiago). Gipuzkoak 2.564 pertsona irabazi ditu; bere saldoa aurreko urtekoa baino % 17 gehiago da. Arabak 3.902 lagun irabazi ditu, % 6ko igoera. Hiriburuak aztertuta, Vitoria-Gasteizek eta Bilbok saldo positiboa dute, 3.164 eta 1.721 pertsona, hurrenez hurren; Donostiak saldo negatibo txikia agertzen du: 94 pertsona gutxiago.

Euskal AEren eta gainerako Erkidego Autonomoen arteko mugimenduak kontuan hartuz gero, 2010. urtean saldoa positiboa da: 3.686 pertsona. Eustatek estatistika hau egiten duenetik hirugarren aldiz jarraian gehiago dira beste Erkidegoetatik hona etorritako pertsonak kontrako bidea egin dutenak baino.

1. grafikoa.- Migrazio-saldoaren bilakaera Lurralde Historikoen arabera



Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko Migrazio-Mugimenduen Estatistika (MME)

Atzerriko herrialdeetako etorkinen migrazio-saldoa positiboa da: 9.342 pertsona; hala ere, zenbaki absolutuetan, 460ko beherapena gertatu da aurreko urtearen aldean (-% 4,7).

Euskal AEko ohiko bizilekuaren aldaketak: Euskal biztanleriaren % 9,1ek bizileku aldaketaren bat egin du 2010. urtean zehar. Mugikortasuna % 72an Euskal AE barruan izan da, eta gainerako kasuetan erkidegotik kanporakoa.

Euskal AEn, guztira, 197.768 kasutan aldatu dira ohiko bizilekuak:

- Kopuru horretatik, 94.784 kasutan udalerrian bertan aldatu dira bizilekuak.
- Erkidego barruko mugimenduak, hau da, bai jatorria, bai helmuga Euskal AEko udalerrietan dituzten mugimenduak 47.544 izan dira.
- Era berean, kanpoko edo erkidegoz kanpoko 34.232 immigrazio gertatu dira. Jatorria gure erkidegoaz kanpo eta helmuga Euskal AEn duten mugimenduak dira horiek. Horien arteko 12.695 atzeritik etorritakoenak izan dira.
- Azkenik, kanpoko edo erkidegoz kanpoko 21.206 emigrazio gertatu dira. Jatorria gure Autonomia Erkidegoko udalerrri batean eta helmuga gure erkidegotik kanpo duten mugimenduak dira horiek. 3.353k atzerriko norakoa izan dute.

1. Taula. Migrazio-mugimenduen eta saldoen bilakaera. Euskal AE

Urtea	Emigrazioak		Immigrazioak		Migrazio saldoa
	Guztira	Aldakuntza Indizea (1988=100)	Guztira	Aldakuntza Indizea (1988=100)	Guztira
1988	18.103	100	8.014	100	-10.089
1992	13.668	76	9.006	112	-4.662
1995	16.130	89	11.316	141	-4.814
1999	17.291	96	16.103	201	-1.188
2000	17.462	96	20.022	250	2.560
2001	18.696	103	25.775	322	7.079
2002	19.730	109	25.967	324	6.237
2003	22.216	123	28.467	355	6.251
2004	21.304	118	30.328	378	9.024
2005	20.672	114	33.993	424	13.321
2006	22.689	125	37.147	464	14.458
2007	23.669	131	41.361	516	17.692
2008	22.389	124	39.190	489	16.801
2009	21.232	117	34.486	430	13.254
2010	21.206	117	34.234	427	13.028

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko Migrazio-Mugimenduen Estatistika (MME)

Euskal herritarren mugikortasun geografikoa urria da gainerako Autonomia Erkidegoekin alderatuz gero

Kanpoko edo erkidegoz kanpoko mugikortasunari dagokionez, 2010. urtean Euskal AEko mila biztanletik 25,6 mugitu dira (% 32,3 Araban, % 26,1 Bizkaian eta % 21,6 Gipuzkoan); mugikortasun hori gainerako Autonomia Erkidegoetan gertatzen denarekin erkatuta txiki samarra da, azken hauetan mila biztanletik 40 mugitzen baitira, batez beste.

Oro har, gehiago da **gainerako Erkidegoetatik** Euskal AEra etortzen den jendea bertatik Erkideko horietara joaten dena baino, salbuespen hauekin: Galizia, Kantabria, Nafarroa eta Extremadura.

Euskal AEko emigratzaileentzat, honako **erkidego** hauek dira **erakargarrienak**, hurrenkera honetan: Gaztela eta Leon, Kantabria, Madril, Katalunia, Nafarroa eta Andaluzia. Seion artean gure Erkidegotik beste Autonomia Erkidegoetara joaten direnen % 66 jasotzen dute.

Atzerriko nazionalitatea duten **inmigratioak** 2010. urtean 20.184 pertsonatan zenbatu dira (horietatik % 44 beste Erkidego Autonomoetatik bertaratu zaizkigu), gure erkidegoan izandako sarrera guztien % 59. Hirugarren urtez jarraian 2000. urtetik hona, beherantz egin du Euskal AEra etorritako etorkin atzerritarren kopuruak: 1.219 etorri ziren, aurreko urtean baino % 5,7 gutxiago. 2010ean 8.852 izan dira beste Autonomia Erkidegoetatik iritsitako etorkin atzerritarrak; horien erdiak baino gehiago Madrildik, Kataluniatik, Valentziako Erkidegotik eta Andaluziatik etorritakoak izan dira, 4.885 pertsona, hain zuzen.

Titulazio-mailari dagokionez, ikasketa-maila apalenetakoak immigrazioen % 65 eta emigrazioen % 66 dira; goi mailako tituludunak %14 dira inmigratioetan, eta % 13 emigrazioetan.

Emigratzaileen **batez besteko adina**, 36,1 urte, altuagoa da etorkinena baino (31,5). **Sexuari** erreparatuz gero, etorkinen % 53 gizonak dira eta % 47 emakumeak; emigrazioetan sexuen arteko aldea txikiagoa da: %52 dira gizonezkoak eta % 48 emakumezkoak.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

[Euskal AEko emigrazio-mugimenduei buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Euskal AEko emigrazio-mugimenduei buruzko datu-bankua](#)